



Co-funded by
the European Union




European Charter for Equality

TOKIKO BIZITZAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUROPAKO GUTUNA

Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR)





Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko Politika Lantaldeak 2006an onartua
Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluko Politika Lantaldeak aldatua 2022an

Eskubide guztiak erreserbatuta © 2022 - CCRE CEMR
Harremanetarako: charter@ccre-cemr.org



EUROPAKO GUTUNA, EMAKUMEEK ETA GIZONEK, TOKIAN TOKIKO BIZIMODUAN, IZAN BEHAR DUTEN BERDINTASUNERAKO

Gutun honen bidez, Europako tokian tokiko eta eskualdeko
governuei euren eskumenak eta elkarlanak erabiltzeko
gonbitea egiten zaie, euren herritarren artean
berdintasun handiagoa lor dezaten



SARRERA

“Europako gutuna, emakumeek eta gizonek, tokian tokiko bizimoduaren, izan behar duten berdintasunerako” Europako tokiko eta eskualdeko gobernuetara bideratuta dago, zeinak sinatzera gonbidatuta dauden, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jarrera publikoa hartzera eta haien lurraldean gutunean ezarritako konpromisoak aplikatzera gonbidatuz.

Konpromiso horien aplikazioa bermatzeko, gobernu sinatzaile bakoitzak (“sinatzailea”) berdintasunerako ekintza-plan bat idatzi behar du, lehentasunak, ekintzak eta horiek gauzatzeko behar diren baliabideak finkatuko dituena.

Gainera, sinatzaile bakoitzak konpromisoa hartzen du bere udal mugetako instituzio eta erakunde guztiekin lankidetzan aritzeko, praktikan benetako berdintasuna benetan ezar dadin sustatzeko.

Gutuna Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak (CEMR) 2005-2006an bere kide eta bazkideekin lankidetzan gauzatzeko proiektu baten esparruan egin zen (ikus “Aipamenak”). Proiektuak Europako Batzordearen laguntza izan zuen, emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekintza komunitarioko 5. programaren esparruan.

2011-2012an, Suediako gobernuak Tokiko eta Eskualdeetako Agintarien Suediako Elkartearen (SALAR, ingeleseko siglak) bidez emandako laguntza eskuzabalarari esker, online behatoki¹ bat sortu zen, sinatzaileei euren konpromisoak betetzen laguntzeko. Behatokiak Gutunean lantzen diren gaiei buruzko informazio, orientazio eta jardunbide egokiaren adibide batzuk eskaintzen ditu.

1 www.charter-equality.eu

2014-2015ean, Europako batzordeak finantzatzeko proiektu pilotu baten esparruan, Gutunaren aplikazioa gainbegiratzeko eta ebaluatzeko adierazle multzo bat sortu eta probatu zuen.

2021ean, CEMRko Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrek aurre hartu zuen, Gutuna berrikusteko eta, beharrezkotzat joz gero, eguneratzeko. Berrikusi ondoren, batzordeak ondorioztatu zuen Gutunean zenbait aldaketa proposatzeko arrazoiak zeudela, helburu hauekin:

- Gutunaren idazketa hobetzea eta argitalpen-aldaketak sartzea;
- Gutunaren ikuspegi intersektionala azaltzea eta indartzea, eta “generoa beti, baina inoiz ez generoa soilik” printzipioari eustea printzipio gidari gisa;
- beste atal batean, elementu gehigarriak jasotzea artikuluen bitartez, adibidez, krisien kudeaketan eta prestakuntza zibilean genero-ikuspegia hartzeko beharra lantzeko, edo Interneten eta digitalizazioaren garapen azkarrean genero-ikuspegiari aurre egiteko.

30. orrialdean artikuluen berriei buruzko atal bat dago. Gutuna sinatzeko dutenei gonbidapena egiten diegu aldaketa horiek babestu eta berresteko, eta, gutunaren xedapenak barneratzeko, Berdintasunerako Europako Gutuna aplikatzerakoan. 2023tik aurrera, sinatzaile berriek, oro har, Gutunaren jatorrizko testua eta 2022ko zuzenketak errespetatzeko konpromisoa hartuko dute.

2022ko eguneraketa eta aldaketak Herritarrak, Berdintasuna, Eskubideak eta Balioak programaren esparruan esleitutako Europar Batasuneko funtsei esker egin dira.



AURREKARIAK

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarriko eskubidea da pertsona guztiontzat, eta funtsezko balioa da demokrazia osorako. Eskubide hori erabat bete dadin, legez aitortzeaz gain, benetan gauzatu behar da eta, era berean, bizitzaren alderdi guztiak inpli-katu: politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.

Nahiz eta aitorten formalaren adibide ugari eta arlo horretan egindako aurrerapenak asko izan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez da oraindik errealitate bat eguneroko bizitzan. Praktikan, emakumeek eta gizek ez dituzte eskubide berberak. Oraindik ere, desberdintasun politikoak, ekonomikoak eta kulturalak daude – esaterako, soldata-aldeak eta politikan ordekaritza txikiagoa izatea.

Desberdintasun horiek, familian, hezkuntzan, kulturean, komunikabideetan, lan-munduan, gizarte-antolamenduan eta abarretan dauden gizarte-erakuntzen emaitza da. Hainbat esparrutan jardun daiteke, hurbilketa berri bat eginez eta egitura-aldaketak sortuz.

Europar Batasuneko genero berdintasuna eta gobernantza

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Europar Batasunaren eta Europako Esparru Ekonomikoaren sorrerako printzipioetako bat da. 1957an hasi zen, Erromako Itunak lan beragatik ordainsari berdinen printzipioa ezarri zuenean.

Tokiko eta eskualdeko agintariak herritarrengandik hurbilen dauden gobernu-eremuak dira, eta esku-hartze mailarik egokienak dira desberdintasunaren iraunkor-tasunari eta hedapenari aurre egiteko eta benetako berdint-

tasunezko gizartea sustatzeko. Beraien eskumenean eta tokiko eragile guztiekin gaur egun dituzten lankidetzaharmanak erabiliz, ekintza zehatzak egin daitezke emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.

Gainera, subsidiarotasun-printzipioak² bereziki zeregin garrantzitsua du emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea aplikatzeari dagokionez. Printzipio hori gobernantza-maila guztiei aplikatzen zaie: Europakoari, nazionalari, eskualdekoari eta tokikoari. Europako toki- eta eskualde-gobernuek hainbat eremuetako erantzukizunak dituztenez, guztiek izan dezakete eta behar dute eginkizun eraikitzailea berdintasuna sustatzeko, pertsonen eguneroko bizitzan eragin positiboak izango dituzten neurri praktikoekin bidez.

Tokiko eta eskualdeko autonomiaren printzipioek lotura estua dute subsidiarotasun-printzipioarekin. Europako Kontseiluaren 1985eko Tokiko Autonomiaren Gutunak, Europako estatu gehienek sinatu eta berretsitakoak, “toki-erakundeek gai publikoen zati handi bat antolatzeko eta kudeatzeko duten eskubidea eta benetako gaitasuna, legearen esparruan, eta beren erantzukizunpean eta biztanleen mesedetan” azpimarratzen du. Berdintasunerako eskubidea aplikatzea eta sustatzea toki-autonomiaren kontzeptu horren alderdi integraltzat hartu behar da.

Tokiko eta eskualdeko demokraziak tranpolin gisa balio behar du, erabaki egokienak hartzeko, eguneroko bizitzako oinarriko alderdi zehatzetan, hala nola, etxebizitza, segurtasun, garraio publiko, lan-mundu edo osasunean.

Gainera, emakumeek tokiko eta eskualdeko politiken garaipenean eta aplikazioan erabat inplikaturik dauudela zaintzeak, aukera ematen du bizitzako esperientziak, eza-

² Europar Batasunaren Tratatuaren 5. artikuluan ezartzen den bezala, printzipio horren arabera EBk ez du jarduten (bere eskumen eskusibokoak diren eremuetan izan ezik), baldin eta bere jarduna nazio-, eskualde- eta toki-mailan hartutako neurriak baino eraginkorragoa ez bada.

gutza teknikoak eta sormena kontuan hartzeko, haiek alferrik galdu beharrean.

Berdintasunean oinarritutako gizarte bat ezartzera iristeko, berebiziko garrantzia du tokiko eta eskualdeko gobernuek generoaren dimentsioa erabat integratzea beren politikan, antolaketan eta praktikan. Gainera, gaur egungo eta biharko munduan, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna da, gainera, gure arrakasta ekonomiko eta sozialaren gakoa – ez bakarrik Europan edo estatuan-, baita gure eskualde, hiri eta tokiko komunitateetan ere.

CEMR eta tokiko/eskualdeko genero berdintasuna

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorarekin batera³, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen du modu aktiboan, toki- eta eskualde-mailan, 1980ko hamarkadatik. Europako toki- eta eskualde-agintariek erabiltzeko tresna zehatzetako bat, CEMRk 2005ean sortu zuena, lankidetzaren ondorioz, Berdintasunaren aldeko Hiria izan zen. Europako hainbat hiri eta udalerritako jardunbide egokiak identifikatuz, *Berdintasunaren Aldeko Hiriak* **genero berdintasunerako politikak** toki- eta eskualde-

mailan aplikatzeko lehen metodologia aurkeztu zuen. Gutun hau -2022an eguneratua- lan horretan oinarritzen da.

Emakumeek tokiko gobernantzan duten ordezkari buruzko CEMRren lehen azterlana 1998an argitaratu zen. 2008an bigarren edizio bat argitaratu zen, egindako jarraipenaren emaitza batzuekin, eta 2019an argitalpena eguneratu eta zabaldu zen, Europako 40 herrialdeetan, erabakiak hartzeko maila guztiek aztertzeko. Emakume politikarien eta buruzagien proportzioak gora egin du urteetan zehar, baina ondoz ondoko azterlan bakoitzak ere erakutsi du premia zela politikaren alderdiko parte-hartzean, ordezkartzean eta eragintzean genero-oreka sustatzen jarraitu beharra.

Tokiko eta eskualdeko gobernuek genero-berdintasunaren sustapenean duten zeregina IULAK (Hirien eta Tokiko Agintarien Nazioarteko Batasuna⁴) "emakumeak tokiko gobernuan" gaiari buruz 1998an egindako Munduko Adierazpenean egiaztatu zen. Adierazpen hori 1998an onartu zen. Munduko antolaketa berriarentzat, Hiri eta Tokiko Gobernu Batuentzat, emakumeen eta gizonen berdintasuna da oraindik ere helburu nagusietako bat.

³ Aurreko izena Tokiko eta Eskualdeko Emakume Hautetsien CEMRko Batzordea izan zen.

⁴ Hirien eta Tokiko Agintarien Nazioarteko Batasuna eta Hiri Batuen Munduko Federazioa 2000ko hamarkadaren hasieran desagertu egin ziren, eta alderdi berri bat sortu zuten: Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak.



LABURDURAK

CEDAW: Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa

CEMR: Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua

SHI: Sexu Hezkuntza Integrala

EB: Europar Batasuna

GI: Genero indarkeria

IKT: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak

TEGk: Tokiko eta Eskualdeetako Gobernuak

GJH: Garapen jasangarrirako helburuak

ZTIM: Zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematika



HITZAURREA

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak, Europa-tokiko eta eskualdeko gobernuak ordezkatzeko dituenak, ber-tako kide eta bazkideekin lankidetzan:

Europako Erkidegoa eta Europar Batasuna askatasunen eta oinarrizko eskubideen errespetuan oinarrituta daudela (bertan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren sustapena hartzen da kontuan) eta Europako legeria Europan arlo horretan lortutako aurrerapenen oinarria izan dela **gogoratuta**.

Giza eskubideen, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta, bereziki, diskriminaziorik ezaren nazioarteko eta Europako esparru juridikoak **kontuan hartuta**:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948);
- Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa (1979);
- Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma (1995);
- EBko Kontseiluaren Gomendioa, emakumeek eta gizonen erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartze orekatua izateari buruzkoa (1996);
- Tokiko Hiri eta Agintarien Nazioarteko Batasunaren Mundu Adierazpena, tokiko gobernuak emakumei buruzkoa (1998);
- EBko Kontseiluaren 2000/78/EE Zuzentaraua, 2000ko azaroaren 27koa, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa; eta
- 2000ko Batzar Nagusiaren 23. bilkura bereziaren ebazpenak (Beijing +5)

- NBEren Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena, emakumei, bakeari eta segurtasunari buruzkoa (2000);
- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000);
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena, 2011n onartua);
- Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak, bereziki 5. helburua (2015);
- Eskubide sozialen Europako zutabea (2017an aldarrikatua);
- Berdintasuna Sortzeko Foroaren Azelerazio Globalako Plana (2021).

Europako Kontseiluak giza eskubideen, emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta toki-autonomiaren sustapenean egin duen ekarpen handia **azpimarratuta**;

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezertzeko, honako hiru alderdi osagarri hauetan jardun beharra dagoela **kontuan hartuta**: desberdintasun zuzenen desagertzea, zeharkako desberdintasunen desagertzea eta egitura politiko, juridiko eta sozial demokratiko eta berdintasunezkoak sortzea;

Berdintasunerako eskubidearen "de jure" onespeneraren eta bere benetako ezarpen eraginkorraren artean dagoen desoreka **gaitzetsita**;

Euren erantzukizunpeko arlo guztietan berdintasunerako eskubidea, emakumeen eta gizon guztien artekoa eta diskriminaziorik gabe, batez ere, ezartzeko orduan, Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek biztanleentzat eta hiritarrentzat oso garrantzitsua den zeregina garatzen duela eta garatu behar dutela **kontuan hartuta**;

Erabakiak hartzeko postuetan eta zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen partaidetza, ordezkartza eta influentzia orekatuak egotea demokraziarako eta garapen iraunkor eta jasangarrirako funtsezkoa dela **aintza hartuta**;

Emakumeek eta gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutuna idatzi du, eta, bertan, Europako tokian tokiko zein eskualdeko gobernuek gonbidatzen dituzte gutuna sinatzera eta abian jartzera.



I. ATALA

Printzipioak

Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Gutun hau sinatzen dugunok geure ekintzek arautzen duten oinarrizko printzipio hauek aitortzen ditugu:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarrizko eskubidea da

Tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek euren erantzukizunpeko arlo guztietan ezarri behar dute eskubide hau. Era berean, era guztietako bereizkeria, zuzena zein zeharkakoa, desagerrarazi behar dute.

2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko, kontuan hartu behar dira bereizkeria eta desabantaila modu anitzak eta elkarri lotuak

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna egon dadin, genero-berdintasunaren arloko ekimenek generoaren eta beste faktore batzuen arteko elkarreragina kontuan hartu eta landu behar dute -ikuspegi integral, sistemiko eta estruktural batetik. Besteak beste, faktore hauekin: sexua, arraza, kolorea, jatorri etniko edo sozialak, ezaugarri genetikoa, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, iritzi politikoak edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina edo sexu-joera.⁵

3. Erabakiak hartzerakoan, emakumeen eta gizonen parte-hartzea eta ordezkaritza orekatua izatea ezinbesteko baldintza da gizarte demokratikorako

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubideak tokiko eta eskualdeko agintariak beharrezko neurri guztiak hartzea eta estrategia egokiak hartzea eskatzen du, emakumeen eta gizonen ordezkaritza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzeko eremu guztietan.

4. Genero-estereotipoak ezabatzea ezinbestekoa da, emakumeen eta gizonen berdintasuna ezartzeko

Tokiko eta eskualdeetako agintariak ahaleginak egin behar dituzte emakumeen egoera eta baldintza desberdintasunen oinarri diren estereotipoak eta oztopoak desagerrarazteko; eta, horrez gain, emakumeek eta gizonek politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloetan betetzen dituzten rolen balorazio desberdina egiteko.

⁵ Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 21. artikulua.

5. Generoaren dimentsioa tokiko eta eskualdeko gobernuen jardura guztietan txertatzea ezinbestekoa da, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko

Generoaren dimentsioa kontuan hartu behar da, politikak egitean eta tokiko biztanleen eguneroko bizitzan eragina duten metodo eta tresnetan Adibidez, «genero-balorazioa»⁶ edo «genero-auditoretzak»⁷ txertatzeko tekniken bidez, «genero-ikuspegi integratua»⁸ eta «genero-arekiko sentikorrek diren aurrekontuak»⁹ lantzean. Horretarako, hainbat emakume-talderen tokiko bizitzako esperientziak aztertu eta kontuan hartu behar dira, baita haien bizi-baldintzak eta lan-baldintzak ere.

6. Behar bezala sortutako eta finantzatutako ekintza-planak eta -programak funtsezko tresnak dira emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko

Tokiko eta eskualdeko gobernuak berdintasunerako ekintza-planak eta programak egin behar dituzte, plana aplikatzeko beharrezkoak diren bide eta baliabideekin, bai finantzarioekin, bai gizatiarrekin.

Oro har, printzipio horiek dira Gutun honen hirugarren zatian azaldutako artikuluen oinarria.

⁶ Genero-ebaluazioa: Politika-proposamen jakin bat ebaluatzeneko politika-tresna, emakumeengan eta gizonengan duen eragina edo eragin bereizgarriak hautemateko eta ebaluatzeneko, desoreka horiek proposamena onartu aurretik zuzendu ahal izateko. (Iturria: Europako Kontseilua [2011]. Emakumeen aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeko eta Borrokatzeko eta haren azalpen-memorandua. Europako Kontseiluaren Tratatuaren Bilduma, 210. zk.)

⁷ Genero-auditoretza: "Genero-berdintasuna politika, programa, antolamendu-egitura eta prozeduretan (erabakiak hartzeko prozesuak barne) eta dagozkien aurrekontuetan benetan zer neurritan instituzionalizatuta dagoen ebaluatzea." (Iturria: Europako Kontseilua - Giza Eskubideen eta Gai Juridikoen Zuzendaritza Nagusia [2009]. Genero-aurrekontuak: Inplementazio praktikoa. Sheila Quinn-ek prestatutako eskuliburua)

⁸ Genero-ikuspegi integratua: "Genero-ikuspegi integratzea planifikatutako edozein ekintza - legeria, politikak edo programak barne - emakumeengan eta gizonengan dituen inplikazioak ebaluatzeneko prozesua da, arlo eta maila guztietan. Estrategia bat da, emakumeen eta gizonen kezka eta esperientziak politikaren, ekonomiaren eta gizartearen eremu guztietan politiken eta programen diseinuaren, ezarpenaren, monitorizazioaren eta ebaluazioaren dimentsio integrala bihurtzeko, emakumeek eta gizonen onura berdinak izan ditzaten eta desberdintasuna betikotu ez dadin. Azken helburua genero-berdintasuna lortzea da." (Iturria: Genero Berdintasunerako Europako Institutua Glosarioa eta Genero Berdintasunaren Tesaurua)

⁹ Genero-arekiko sentikorrek diren aurrekontuak: "Aurrekontuak generoan oinarrituta ebaluatzea, aurrekontu-prozesuaren maila guztietan genero-ikuspegi txertatuz eta diru-sarrerak eta gastuak berregituratuz, genero-berdintasuna sustatze aldera." (Iturria: Europako Kontseilua, 2009)



II. ATALA

Gutuna eta bere konpromisoak ezartzea

Sinatzaileak honako neurri berezi hauek hartuko ditu, Gutun honetan xedatutakoa ezartzerako orduan:

- (1) Sinatu osteko zentzuzko epean (epea ez da bi urtetik gorakoa izango), gutun hau sinatzen duen tokian tokiko edo eskualdeko gobernuak berdintasunerako ekintza-plana egin eta egokitu egingo du, eta, ondoren, ezarri egingo du.
- (2) Berdintasunerako ekintza-planean bertan, gobernu sinatzailearen helburuak, lehentasunak, neurriak eta baliabideak zehaztuko dira, gutuna eta bere konpromisoak eraginkorrak izan daitezen. Era berean, ezarpenerako proposatutako egutegia ere agertuko da planean bertan. Sinatzaileak berdintasunerako ekintza-planik badauka, berrikusi egingo du, Gutunean adierazitako eduki guztiak jorratu egiten direla bermatzeko, horien artean, 31. artikulutik 39.era bitartekoak, 2022an gehitu zirenak.
- (3) Sinatzaile bakoitzak eragile interesdun garrantzitsuei galdeketa zabalak egingo dizkie, berdintasunerako ekintza-plana onartu baino lehen, eta zabaldu egingo du, onartu ondoren. Horrez gain, planaren ezarpenean egindako aurrerapenen berri eman beharko du jendaur-rean, aldian-aldian.
- (4) Sinatzaile bakoitzak bere berdintasunerako ekintza-plana berrikusiko du, inguruabarren arabera, egokia izanez gero, eta plan osagarria egingo du hurrengo epealdiari begira.
- (5) Hasiera batean, sinatzaile bakoitzak ebaluazio-sistema egokian parte hartuko du. Izan ere, idatzi egingo da, Gutun¹⁰ honen ezarpenaren aurrerapenen jarraipena egiteko eta Europako tokian tokiko zein eskualdeko gobernuetara genero berdintasun handiagoa lortzeko bitarteko eraginkorrei buruzko ezagutzak euren artean trukatzeko laguntzeko. Horretarako, berdintasunerako ekintza-planak eta kasuan kasuko beste agiri publiko batzuk egon beharko dira eskuragarri, sinatzaile bakoitzarenak.
- (6) Sinatzaile bakoitzak Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluari idatziz jakinaraziko dio gutuna sinatu duela, noiz berretsi duen eta noren ardurapean egongo diren harremanak Gutunaren eta bere aplikazioaren inguruko etorkizuneko lankidetzak guztia bermatu ahal izateko.

¹⁰ <https://bit.ly/IndicatorToolEN>



III. ATALA

Erantzukizun Demokratikoa

1. artikulua – Konpromiso politikoa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du berdintasunerako eskubidea demokraziaren alde aurreko funtsezko baldintza dela, eta gizarte demokratikoak ezin dituela albo batera utzi emakumeen gaitasuna, ezagutza, esperientzia eta sormena, bere aniztasun osoan. Horretarako, berdintasunean oinarrituta, bermatu egin behar du beste leku batzuetako eta adin-talde desberdinetako emakumeen inklusioa, ordezkari eta parte hartzea, erabaki politikoak eta publikoak hartzeko eremu osoan.
- (2) Sinatzaileak, bere biztanleriaren eta lurraldearen ongizatea sustatzeko demokratikoki hautatutako arduraduna den aldetik, konpromisoa hartzen du, ondorioz, eskubide hori bere jardura-eremu guztietan modu zehatzean aplikatu dadin sustatzeko eta laguntzeko, -tokiko komunitatearen ordezkari demokratiko, zerbitzu-hornitzaile eta -komandatariorik, planifikatzaile eta arautzaile, eta enplegatzaile gisa duen funtzioaren zati den aldetik.

Zeregin politikoa

2. artikulua – Ordezkaritza politikoa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonek bozkatzeko, hautagaiak izateko eta hautetsiak izateko eskubide bera daukatela.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonek politiken sorreran zein ezarpenean parte hartzeko, aginte publikoa edukitzeko eta gobernuko maila guzti-etako eginkizunak betetzeko eskubide bera daukatela.
- (3) Sinatzaileak onetsi egiten du ordezkari orekatua izan behar dela erabaki publikoak hartzeko prozesuan parte hartzen duten erakunde hautetsi guztietan.
- (4) Sinatzaileak behar besteko neurri guztiak hartuko ditu, lehen aipatutako eskubideak eta printzipioak defendatzeko eta babesteko. Horrez gain:
 - emakumei eskatuko die hauteskundeetako zerrendetan izena emateko, sufragio unibertsal-lerako eskubidea erabiltzeko eta agintaldi zein eginkizun hautetsietarako hautagaiak izateko.
 - alderdi eta talde politikoei eskatuko die emakumeen eta gizonen ordezkari orekatuaren printzipioa ezartzeko.
 - horretarako, alderdi eta talde politikoei eskatuko die behar besteko legezko neurri guztiak hartzeko eta kuota ezartzeko, beharrezkoa izanez gero. Horrela, bada, emakume gehiago izango dira hautagaiak eta hautetsiak.

- bere prozeduren arauak eta jokabide-arauak zehaztuko dituzte, emakume hautagaiak eta hautetsitako ordezkariak nahi ez dituzten jokabideek edo hizkerak edo edonolako jazarpenek eraginik izan ez dezaten.
 - behar besteko neurriak hartuko ditu, hautetsitako ordezkariak bizitza pribatua, profesionala eta publikoa bateratzeko aukera izan dezaten. Esate baterako, bermatu egingo du ordutegiak, lan-metodoak eta seme-alabentzako eta euren ardura-pekoentzako haurtzaindegiak eginkizun guztietan bete-betean parte hartzeko modukoak direla.
- (5) Sinatzaileak ordezkaritza orekatuaren printzipioa sustatu eta ezarri egingo du, erabakiak hartzeko edo aholkularitza emateko organismoetan eta kanpoko edozein organotarako izendapenetan.
- Hala ere, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua lortzen saiatzean, sinatzaileak aurrekoa aplikatuko du, gutxiengo ordezkaritza duen generoarentzat egungo egoeran baino mesedegarriagoa izan ez dadin.
- (6) Era beran, sinatzaileak konpromisoa hartzen du kargu publiko eta politiko guztiak, izendatuak edo behar bezala hautatuak izan, inola ere –ez printzipioz, ez praktikan– ez direla jarrera esterotipatuaren ondorioz genero bakar baterako gordeta egongo ziurtatzeko.

3. artikulua – Bizitza politikoan eta zibikoan parte hartzea

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du herritarrek gai publikoetan parte hartzeko daukaten eskubidea oinarritzko printzipio demokratikoa dela eta emakumeek zein gizonen euren eskualdeko, udalerriko eta toki-erkidegoko gobernuan zein bizitza publikoan berdintasunean parte hartzeko eskubidea dutela.
- (2) Bertako gaietan jendaurrean parte hartzeko moduei dagokionez (esate baterako, aholkularitza-batzordeen, auzoko kontseiluen, partaidetza birtualaren edo partaidetzan oinarritutako plangintza-prozesuen bitartez), sinatzaileak oso kontuan hartu beharko du emakumeek eta gizonen berdintasunean parte hartzeko aukera izan behar dutela praktikan.
- Partaidetzak berdintasuna sustatzen ez badu, sinatzaileak metodo berriak garatu eta jarri beharko ditu abian, helburu hori lortu ahal izateko.
- (3) Sinatzailea komunitateko talde guztietako emakumeen eta gizonen parte-hartze aktiboa sustatzeaz arduratuko da, bereziki, bizitza politikoan eta gizabidean, baztertuak izan daitezkeen talde minoritarioenak.

4. artikulua – Berdintasunerako konpromiso publikoa

(1) Bere udalerriko edo lurraldeko ordezkari demokratikoa denez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa bizitza publikoan ezartzeko konpromiso publiko eta formala onartu beharko du sinatzaileak. Horrez gain:

- erakunde ordezkari gorenean eztabaidatu eta berretsi ondoren, gutuna sinatu duela iragarri beharko du;
- gutun honetan adierazitako betebeharrak ezarri beharko ditu, eta, aldian-aldian, berdintasunerako ekintza-planaren ezarpenean egindako aurrerapenen berri eman beharko du jendaurrean. Horretarako, prestatutako Gutuneko adierazleen multzoa erabiliko du, hala badagokio;
- sinatzaileak eta agintaritzako hautetsiek agindu egin beharko dute genero-berdintasunarekin bat egingo dutela eta jokabide egokia erakutsiko dutela arlo horretan;

(2) Sinatzaileak bere agintaldi demokratikoa erabili egingo du, gainerako erakunde publiko eta politikoek, erakunde pribatuek eta gizarte zibileko erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea praktikan erabiltzeko neurriak hartu ditzaten.

5. artikulua – Erakunde bazkideekin lan egitea berdintasuna sustatzeko

(1) Sinatzaileak hitz ematen du lankidetzan arituko dela bere bazkide guztiekin -sektore publiko eta pribatukoekin, bereziki, gizarte-solaskideekin eta gizarte zibileko erakundeekin, emakumeen erakundeak eta gainerako gobernu-mailak barne-, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa sustatzeko, bere ekintza-eremuko bizitzako alderdi guztietan.

(2) Sinatzaileak instituzio eta erakunde bazkideei eta gizarte-erakunde bazkideei galdetuko die berdintasunerako ekintza-planaren prestaketari zein berrikuspenari buruz edo berdintasunarekin zerikusia daukaten beste gai garrantzitsu batzuei buruz.

6. artikulua – Estereotipoen gaitzespena

- (1) Ahal duen neurrian, sinatzaileak aurreiritziak, sexu baten edo bestearen nagusitasunean edo gutxiagotasunean oinarritutako irudiak, jarduerak eta esamoldeak edo genero-estereotipok saihestu eta prebenitu egingo ditu.
- (2) Horretarako, sinatzaileak bermatu egingo du jendurreko eta barruko komunikazioak konpromiso hori bete-betean betetzean duela eta genero-irudi positiboak eta adibide positiboak sustatzen direla.
- (3) Prestakuntzaren bidez edo beste sistema batzuen bidez, sinatzaileak laguntzaileei lagunduko die aurreiritzi inkontzienteak, jarrera eta jokabide estereotipatuak antzematen eta desagerrarazten, eta horren inguruko jokabidea bideratuko du.
- (4) Sinatzaileak jarduerak eta kanpainak egingo ditu, generoaren arloko arauak eta estereotipoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan daukaten zeregin kaltegarriaren inguruko kontzientzia sustatzeko.

7. artikulua - Administrazio egokia eta galdeketa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeen eta gizonen gaiak berdintasunez, inpartzialtasunez eta zuzentasunez eta epealdi egokian tratatu behar direla. Horrez gain:
 - eurengan eragina daukan eta eurentzat kaltegarria izan daitekeen banan-banako edozein erabaki hartu baino lehen, entzunak izateko eskubidea izango dute;
 - agintaritzak bere erabakiei buruzko arrazoiak eman beharko ditu;
 - eurengan eragina duten gaiei buruzko informazioa edukitzeko eskubidea daukate.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du bere eskumenetan, politiken kalitatean eta erabakiak hartzeko prozesuan eragina daukan guztiak hobera egingo lukeela, horren guztiaren eraginpean dauden pertsonen, prestakuntza garaian, alde aurretik galdetuz gero. Era berean, oso garrantzitsua da emakumeek eta gizonek unean uneko informazioa eskuratzeko eta jarduteko aukera bera izatea praktikan.
- (3) Beraz, sinatzaileak honako neurri hauek egokitzen jotzeko konpromisoa hartzen du:
 - informazioa eskaintzen duen sistema orok emakumeen eta gizonen taldeen beharrak kontuan hartzen dituela ziurtatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbide-maila desberdinak barne;

- galdeketak daudenean, ziurtatzea entzunak izateko aukera gutxien dituzten ikuspegiak galdeketan bertan hartzen direla kontuan eta partaidetza bermatzeko legezko ekintza positiboak egiten direla;
- hala badagokio, aparteko galdeketak egitea emakumei.

Berdintasunerako esparru orokorra

8. artikulua – Konpromiso orokorra

- (1) Bere eskumenen arloan, sinatzaileak, aniztasun osoan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eskubideak eta printzipioak onetsi, errespetatu eta sustatu egingo ditu, eta generoari lotutako oztopoei eta bereizkeriari aurre egingo die.
- (2) Gutun honetan adierazitako konpromisoak sinatzaileari ezarriko zaizkio, legez daukan boterearen arabera, oso-oso-oso edo zatika, dagokion lekuan bertan.

9. artikulua – Genero-balorazioa

- (1) Bere eskumenen eremuan, sinatzaileak genero-balorazioa egingo du, artikulua honetan xedatutakoaren arabera.
- (2) Horretarako, sinatzaileak bere genero-balorazioak ezartzeko programa jarriko du abian, bere lehentasunen, baliabideen eta egutegiaren arabera, eta berdintasunerako ekintza-planean hartuko da kontuan.
- (3) Genero-balorazioek honako neurri hauek hartuko dituzte kontuan, hala dagokionean:
 - gaur egun abian dauden politikak, prozedurak, jarduerak eta ereduak berrikusiko dira. Horiek horrela, bertan bereizkeriarik edo bidegabekeriarik dagoen, genero-estereotipoetan oinarrituta dauden eta, aniztasun osoan, emakumeen zein gizonen premia bereziak behar den moduan kontuan hartzen diren aztertu ahal izango da;
 - lehen adierazitako helburuetarako esleitutako finantza-baliabideak edo beste batzuk berrikusiko dira;
 - lehentasunak eta helburuak, beharrezkoak balira, zehaztuko dira, berrikuspenetan sortutako gaiak jorratzeko eta zerbitzuen hornikuntzetan hobekuntzak gehitzeko;
 - prozesuaren hasieratik, politika berrietarako edo aldatuetarako eta baliabideak esleitzeko prozedurarako eta aldaketarako edozein proposamen adierazgarri aztertuko da, emakumeengan eta gizonengan daukan eragina antzemateko eta azterketa horren arabera azken erabakiak hartzeko;

- Bereizkeria edo desabantaila-forma anitzak eta elkarri lotuak jasaten dituztenen premiak edo interesak hartuko dira kontuan.

10. artikulua – Bereizkeria- edo desabantaila forma anitzak eta elkarri lotuak

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du honako arrazoi hauengatik bereizkeria debekatuta dagoela: sexua, arraza, jatorri soziala edo etnikoa, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, iritzi politikoak edo beste era bateko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, jabetza, jaiotza, ezintasuna, adina edo orientazio sexuala.
- (2) Hori horrela izanik ere, sinatzaileak onartu egiten du emakume eta gizon askok bereizkeria- edo desabantaila forma anitzak eta elkarri lotuak jasaten dituztela, oztopoak aurkitzen dituztela eta desabantaila sozio-ekonomikoek eragin zuzena daukatela gutun honetan zehaztutako gainerako eskubideak erabiltzeko duten gaitasunean bertan.
- (3) Bere eskumenen eremuan, sinatzaileak behar besteko neurriak hartuko ditu, bereizkeria- edo desabantaila forma anitzen eta elkarri lotuen eraginei aurre egiteko. Horrez gain:
 - berdintasunerako ekintza-planean eta genero-balorazioetan bereizkeria- edo desabantaila-forma anitzen eta elkarri lotuen arazoa lantzen dela bermatzea;
 - Gutun honetako gainerako artikuluekin lotutako ekintzak edo neurriak abiarazten direnean bereizkeria- edo desabantaila forma anitzetatik eta elkarri lotuetatik eratorritako gaiak kontuan hartuko direla ziurtatzea;

- jendaurreko informazio-kanpainak egitea, estereotipo-ak aurre egiteko eta bereizkeria- edo desabantaila-modu anitzak jasan ditzaketen gizonen eta emakumeen tratu-berdintasuna sustatzeko;
- neurri bereziak hartzea, emakume eta gizon mi-gratzaileen premia bereziei erantzuteko.

Enplegu-emailearen zeregina

11. artikulua – Genero-berdintasuna lantokian

- (1) Enplegu-emaile moduan dituen eginkizunetan, sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen eskubide berbera daukatela laneko arlo guztietan, bai eta lanaren antolamenduan zein lan-baldintzetan ere.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du bizitza profesionala, soziala eta pribatua bateratzeko eskubidea eta laneko duintasunerako zein segurtasunerako eskubidea errespetatu behar direla.
- (3) Sinatzaileak konpromisoa hartzen du arrazoizko neurri guztiak hartzeko, baita bere legezko botereen irismenaren barruan dauden ekintza positiboak ere, lehen aipatutako eskubideak zehazteko.
- (4) Hona hemen 3. puntuan aipatutako balizko neurriak:
 - (a) Erakundean bertan, lan-arloko politikak eta prozedurak berrikustea, eta berdintasunerako planeko “lan-arloa” garatzea, epealdi egokian desberdintasunei aurre egin ahal izateko. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste:
 - soldaten berdintasuna, bai eta lan baliokiderako soldata berdina ere;
 - soldatak, ordainsariak, ordainbideak eta erretiro-aukerak berrikusteko xedapenak;
 - karrerako garapenerako aukerak eta promozioa ekitatez eta gardentasunez bermatzeko neurriak;
 - emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua maila guztietan bermatzeko neurriak, eta, batez ere, goi-mailetan zein zuzendaritzako mailetan edozein desoreka zuzentzeko neurriak;

- generoan oinarritutako bereizketa profesionalari aurre egiteko eta langileek ezohiko postuak eskatzeko eta betetzeko neurriak;
 - berdintasunezko kontratazioa, ez partziala, ziurtatzeko neurriak;
 - osasunerako arriskurik gabeko eta segurtasun osoko lan-baldintza egokiak bermatzeko neurriak.
- (b) Langileei eta euren sindikatuei galderak egiteko prozedurak eta aholkularitza edo negoziaketa erakundeetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua ziurtatzeko prozedurak.
- (c) Lantokiko abusu, sexu-jazarpen edo indarkeria ororen aurkako jarrera argia — onlineko telelana barne —, anbiguotasunik gabe adieraziz jokabide horiek onartezinak direla, eta, horrez gain, gaiari buruz sentsibilizatzea, biktimei laguntzea, politika gardenak hartzea eta aplikatzea.
- (d) Tokiko biztanleen aniztasun soziala, ekonomikoa eta kulturala islatzen duen lan-plantilla lortzeko aldaketa, erakundearen maila guztietan.
- (e) Bizitza profesionala, soziala eta pribatua bateratzeko laguntza ematea. Horretarako:
- beharrezkoa denean, laneko ordutegia egokitzeko eta langileen menpe dauden pertsonen laguntzeko aukera eskaintzen duten politikak ezartzea;
 - gizonak animatzea, euren ardurapeko pertsonen laguntzeko asmoz lanera ez joateko daukaten ekubidea erabil dezaten, aitatasun-baja barne.

Lehiaketa eta kontratu publikoak

12. artikulua – Lehiaketa eta kontratu publikoak

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna estrategikoki sustatzeko erantzukizuna duela, kontratazio publikoarekin lotutako zereginak eta betebeharrak betetzean, produktuak hornitzeko, zerbitzuak emateko edo obrak egiteko kontratuak barne.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du erantzukizun hori oso berezia dela beste erakunde juridiko bati zerbitzu publiko garrantzitsua eman behar zaionean eta legearen arabera sinatzailea bera erantzulea denean. Halakoetan, sinatzaileak bermatu egingo du kontratua jasotzen duen erakunde juridikoak (bere estatus juridikoa edonolako dela ere) genero-berdintasuna sustatu beharko duela, sinatzailea bera zerbitzu-emalea izan balitz egingo zuen bezalaxe.
- (3) Horrez gain, sinatzaileak honako neurri hauek ere ezarriko ditu, egokiak iruditzen zaizkionean:
- (a) sinatu beharreko kontratu adierazgarri guztietan, genero-inplikazioak eta kontratu horrek legezko berdintasunaren sustapenerako eskaintzen dituen aukerak kontuan hartzea;
 - (b) kontratuaren xedapenek genero-berdintasunaren helburuak kontuan hartzen dituztela bermatzea;
 - (c) kontratuaren gainerako terminoek eta baldintzek helburuok kontuan hartzen dituztela ziurtatzea;
 - (d) Europako legeriak¹¹ eskaintza publikoen gainean emandako botereak erabiltzea, gizarte gaietako errendimenduaren baldintzak zehazteko;

¹¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24/EB Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (testu egokia EEEren ondorioetarako).

- (e) kontratazio publikoaren eta kontratuen esleipenaren arduradunen langileek edo aholkulariek genero-ikuspegi duen kontratazio publikoari eta beren lanaren genero-berdintasunaren dimentsioari buruzko informazio egoki guztia jasoko dutela bermatzea, baita prestakuntzaren bidez ere;
- (f) kontratu nagusiko baldintzetan, bermatzea azpikontratista guztiek ere behar besteko betebeharrak guztiak betetzen dituztela, genero-berdintasuna sustatzeko.

Zerbitzu-emaikearen zeregina

13. artikulua - Hezkuntza eta etengabeko prestakuntza

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du guztiek hezkuntzarako eskubidea dutela eta etengabeko lanbide-prestakuntza jasotzeko eskubidea dutela. Sinatzaileak onartu egiten du hezkuntzarako eskubidea, formala zein ez-formala, oso-oso garrantzitsua dela bizitzako garai guztietan. Horiek horrela, benetako aukera-berdintasuna bermatuko da, bizitzarako zein lanerako oinarritzko trebetasunak lortuko dira eta garapen profesional eta lanerako aukera berriak sortuko dira.
- (2) Bere eskumenen eremuan, sinatzaileak bere gain hartuko du etengabeko lanbide-prestakuntza eta hezkuntza eskuratzeko aukera bera bermatzea edo sustatzea adin guztietako emakumei eta gizonei, haien aniztasun osoan.
- (3) Sinatzaileak onetsi egiten du edozein genero-kontzeptu estereotipatu desagerrarazi beharra dagoela emakumeek eta gizonek hezkuntza-modu guztietan dituzten zereginetatik. Hori lortzeko, honako neurri hauek hartu edo sustatuko ditu, komeni den bezala eta bere eskumen eta erantzukizunen eremuan:
 - hezkuntzako materiala, eskolako programak, beste era bateko programak eta irakaskuntza-metodoak berrikustea, jarrera eta jardura estereotipatuen aurkakoak izan ez daitezten;
 - ekintza bereziak ezartzea, ezohiko ikasketen aukeraketa sustatzeko;
 - gizarte-hezkuntzarako eta hiritarren hezkuntza-rako ikastaroetan, zenbait osagai ezartzea, emakumeek eta gizonek prozesu demokratikoan berdintasuneko partaidetza izatea oso garrantzitsua dela nabarmentzeko;

(4) Sinatzaileak onetsi egiten du eskoletako eta beste hezkuntza-zentro batzuetako agintaritzak figurak haurtzaroan eta gaztaroan eragiteko lehen ereduak bat direla. Beraz, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuak sustatuko du ikastetxeetako zuzendaritzako eta gobernu maila guztietan.

14. artikulua - Osasuna

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du pertsona guztiek osasun fisiko eta psikiko onaz gozatzeko eskubidea dutela eta egiaztatu egiten du emakumeentzat eta gizonentzat, haien aniztasun osoan, ezinbestekoa dela medikuntzako prestazioak, kalitateko tratamenduak eta medikuntza-prebentzioa eskuratzeko aukera izatea, eskubide hori betearazi ahal izateko.
- (2) Sinatzaileak onartzen du osasun onaz gozatzeko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bermatzerakoan, zerbitzu medikoen eta sanitarioen ez dituztela alde batera utzi behar haien beharrezko ezberdinak. Horrez gain, onetsi egiten du desberdintasun horiek alde biologikoen ondorioak ez ezik, bizi zein lan baldintzen eta genero-jarrera zein genero-jokabide estereotipuen ondorioak ere badirela.
- (3) Erantzukizunak dituen eremuan, sinatzaileak behar besteko ekintza guztiak garatu egingo ditu, hiritarrei ahalik eta osasun-maila onena ziurtatzeko. Horretarako, sinatzaileak honako neurri hauek hartu edo sustatu egingo ditu:
 - genero-ikuspegia kontuan hartzea, plangintza egiteko orduan, baliabideak esleitzeko orduan eta medikuntza zein osasun arloko zerbitzuak hornitzeko orduan;
 - osasuna sustatzera bideratutako jarduerak, elikadura ona eta ariketa fisikoaren garrantzia lortzera bideratutakoek barne, emakumeen eta gizonen beharrak eta jarrerak desberdinak izan daitezkeela onartzen dutela bermatzea;

- osasun-langileek, osasuna sustatzen dutenek barne, generoak arreta medikoan eta sanitarioan eragina izan dezakeela eta emakumeek eta gizonen arreta hori modu desberdinean jasan dezaketela bermatzea;
- emakumeek eta gizonen datu frogagarrietan oinarritutako osasun-informazio zientifikoa eskura izatea bermatzea.

15. artikulua – Zainketa eta zerbitzu sozialak

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du pertsona orok eskubidea duela oinarrizko gizarte-zerbitzuak izateko eta, beharrezkoa izanez gero, gizarte-zerbitzu baten laguntzaz baliatzeko.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen premia desberdinak dituztela, eta premia horiek hainbat baldintza ekonomiko eta sozialetatik, beste faktore batzuetatik eta bereizkeria- eta desberdintasun-modu erlazionatuak dakartzaten esperientzietatik etor daitezkeela. Hori dela eta, emakumei eta gizonen gizarte-laguntza eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera bera bermatzeko, sinatzaileak neurri guztiak hartu beharko ditu honako hau ziurtatzeko:
 - genero-ikuspegi interseksionala txertatzea plangintzan (datuak biltzea barne), baliabideen horniduran eta gizarte-laguntza eta gizarte-zerbitzuak ematean;
 - gizarte-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak ematen inplikaturik dauden pertsonen zerbitzu horiei generoak eragiten dien moduak aitortuko dituztela bermatzea, eta zerbitzu horiei buruz emakumeek eta gizonen dituzten esperientziak kontuan hartzea.

16. artikulua – Adingabeen zainketa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du adingabeak zaintzeko kalitate handiko sistemek zeresan handia daukatela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren sustapenean eta euren bizitza profesionala, publikoa eta pribatua bateratzeko daukaten gaitasunean, beti ere arlo ekonomikoari begira bideragarriak badira eta gurasoentzat nahiz umeez arduratzen direnentzat eskuragarriak badira, euren finantza-egoera edonolakoa bada ere. Horrez gain, sinatzaileak onetsi egiten du adingabeak zaintzea oso garrantzitsua dela bizitza ekonomikoari eta sozialari begira, gizarte-lotunea sortzen duelako toki-erkidegoan zein gizarte osoan.
- (2) Sinatzaileak adingabeentzako zainketarako sistema horiek zuzenean edo beste zerbitzu-emaile batzuen bitartez hornitu eta sustatu egingo ditu eta behar besteko lehentasuna emango die. Horrez gain, beste eragile batzuen esku utziko ditu sistema horiek, bai eta tokian tokiko enplegu-emaileek adingabeentzako zainketa-sistemari emandako laguntza ere.
- (3) Halaber, sinatzaileak onetsi egiten du adingabeen hezkuntzak emakumeen eta gizonen eta gizarte osoaren arteko erantzukizuna partekatzea eskatzen duela, eta genero-estereotipoei aurre egiteaz arduratuko dela, horien arabera, adingabeak zaintzea, batez ere, emakumeen zeregina edo zama baita.

17. artikulua – Beste mendeko pertsona batzuen zaintza

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonek erantzukizunak izan ditzaketela mendekotasuna duten beste pertsona batzuk zaintzeko, adingabeez gain, eta erantzukizun horrek eragina izan dezakeela bizitza ekonomikoan eta sozialean beren zeregina betetzeko duten gaitasunean.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du, gainera, erantzukizun horiek sarriegitan uzten direla emakumeen esku eta oztopo ikaragarria dela genero-berdintasuna lortzeko orduan.
- (3) Sinatzailea arduratu egingo da desberdintasun horri aurre egiteaz, eta honako neurri hauek hartuko ditu, dagokionaren arabera:
 - bere lehentasunen artean sartzea mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko sistemak gauzatzea eta sustatzea, zuzenean edo beste mailegu-hartzaile batzuen bidez, irigarriak, kalitate handikoak eta ekonomikoki onargarriak direnak;
 - arlo horretan dituen erantzukizunen arabera, gizarte-isolamendupean bizi direnei laguntzea eta behar besteko aukerak sustatzea;
 - estereotipoen aurkako kanpainak antolatzea, ardurapeko pertsonen zaintza emakumeen lehen erantzukizuna dela adierazten baitute.

18. artikulua – Gizarteratzea

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du pertsona guztiek dutela pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka babestuak izateko eskubidea, eta, oro har, emakumeek gizonen baino joera handiagoa dutela gizarte-bazterkeria jasateko, gizonekin konparatuz, desberdin eskuratzen dituztelako baliabideak, ondasunak, zerbitzuak eta aukerak.
- (2) Ondorioz, bere zerbitzu eta erantzukizun guztietan, bere bazkide guztiekin batera lan eginda, sinatzaileak behar besteko neurriak hartuko ditu oro har koordinatuta dagoen hurbilketaren esparruan, honako helburu hauek betetzeko asmoz:
 - enplegua, etxebizitza, prestakuntza, hezkuntza, kultura, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) eta gizarte-bazterkeriako edo pobreziako egoeran bizi diren edo bizitzeko arriskuan dauden pertsona guztien gizarte- eta mediku-laguntza benetan eskura izatea sustatzea, landa-eremuetan zein hiri-eremuetan;
 - gizarte-bazterkeria jasaten duten emakumeen premia bereziak eta egoera ezagutzea, bereziki, elkarrekin lotzen diren ezaugarriei erreparatuz;
 - emakume eta gizon migratzaileen integrazioa sustatzea, haien premia espezifikoak kontuan hartuta.

19. artikulua – Etxebizitza

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du pertsonak etxebizitzarako eskubidea daukatela eta egiaztatu egiten du kalitate oneko etxebizitza eskuratzeko aukera oinarritzko premietako bat dela gizabanakoaren zein familiaren osasuna eta ongizatea erdiesteko orduan.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen premia bereziak eta desberdinak izaten dituztela etxebizitzaren arloan eta bete-betean hartu behar direla kontuan. Izan ere:
 - (a) batez beste, emakumeek gizonen baino diru-sarrerara gutxiago eta ekonomia-baliabide gutxiago dituztenez, euren baliabideen araberako etxebizitzak behar dituzte;
 - (b) guraso bakarreko familia gehienetako buruak emakumeak direnez, ondorioz, etxebizitza soziala edo etxebizitzarako laguntzak eskuratzeko premia handiagoa dute;
 - (c) egoera zaurgarrian bizi diren gizonak larregi ordezkatuta daude, etxebizitza finkorik gabeko (EFG) pertsonen artean.
- (4) Horrenbestez, sinatzaileak konpromiso hauek hartuko ditu, dagokionaren arabera:
 - (a) kalitatezko etxebizitza, tamaina eta maila egokikoa (energia-efizientziarekin) eskuratzeko aukera erraztea edo sustatzea, funtsezko zerbitzuak dituen bizi-ingurune egokian dagoen pertsona guztientzat;

- (b) Bbhar besteko neurriak hartzea, etxebizitza-gabezia prebenitzeko eta etxebizitza-rik ez dutenei laguntzeko, premiaren, zaurgarritasunaren eta ez- bereizkeriaren irizpideetan oinarrituta;
- (c) bere eskumenen arabera, etxebizitzaren prezioan bertan esku hartzea, behar beste baliabiderik ez dutenentzat eskuragarriak izan daitezzen.
- (4) Era berean, sinatzailea arduratuko da errentari, jabe edo etxebizitzaren jabetza izateko edo beste edozein moduren jabe izateko emakumeen eta gizonen eskubideen berdintasuna bermatzeaz edo sustatzeaz. Horretarako, bere ahalmena edo eragina erabiltzeko konpromisoa hartuko du, emakumeek etxebizitza bat lortzeko hipotekak eta finantza- eta kreditu-laguntzak eskuratzeko berdintasuna dutela bermatzeko.

20. artikulua – Kultura, kirola eta aisialdia

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen bizitza kulturean parte hartzeko eta bizitza artistikoaz gozatzeko eskubidea daukatela.
- (2) Sinatzaileak, gainera, onetsi egiten du kirolak komunitatearen bizitzan egiten duen ekarpena eta osasunerako eskubidea bermatzen dituela, 14. artikuluan adierazitakoaren arabera. Era berean, onetsi egiten du emakume eta gizonen talde ezberdinek eskubide berbera dutela kultura, kirol eta astialdi arloko jarduerak egin eta instalaziook erabiltzeko orduan.
- (3) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen esperientzia eta interes desberdinak izan ditzaketela kulturaren, kirolaren eta jolas-jardueren arloan, eta generoarekin zerikusia duten estereotipo, jarrera, arau eta ekintzen emaitza izan daitezkeela; beraz, konpromisoa hartzen du hori eragozteko neurriak hartzeko edo sustatzeko, dagokionaren arabera:
- emakumei, gizoni, mutilei eta neskei kirol, aisialdi eta kultura arloko instalazio eta jardueretarako eskaintza eta sarbidea bera bermatzea;
 - emakumeak, gizonak, mutilak eta neskek animatzea baldintza berdinetan parte har dezaten kirol- eta kultura-jarduera mota guztietan, baita tradizioz nagusiki «femeninotzat» edo «maskulinotzat» jotzen diren jardueretan ere;
 - arte, kultura eta kirol arloko elkarteak animatzea emakumeen eta gizonen genero-ikuspegi estereotipatu zalantzan jartzen duten kultura- eta kirol-jarduerak sustatzera;

- liburutegi publikoetako zerbitzuak genero-estereotipoak zalantzan jartzera animatzea, liburuak, katalogoak eta bestelako materialak aukeratuz, bai eta beste sustapen-jarduera batzuetan ere.

21. artikulua - Segurtasuna

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du emakume eta gizon guztiek euren segurtasunerako eta mugimendu-askatasunerako eskubidea daukatela eta badakiela eskubide horiek ezin direla askatasunez edo baldintza berdinetan erabili eremu publikoan eta pribatuan, emakumeak eta gizonak segurtasunik ezaren biktimak badira edo euren segurtasuna mehatxupean badago.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du betebeharren eta bizimodu desberdinen ondorioz emakumeek eta gizonen sarridan segurtasunarekin zerikusia daukaten arazoei aurre egin behar dietela eta arazo horiek behar den moduan tratatu behar direla.
- (3) Horrenbestez, sinatzaileak honako konpromiso hauek hartuko ditu:
 - (a) genero-ikuspegia hartzea emakumeen eta gizonen segurtasunari eragiten dioten gertakarien (pertsonei aurkako delitu larriak barne) bolumenari eta jarraibideei buruzko estatistikak aztertzean, eta delinkuentziarekiko beldurraren maila eta izaera edo bestelako segurtasun-gabeziako iturriak neurtzea;
 - (b) emakumeen eta gizonen segurtasun praktikoa hobetuko duten estrategiak, politikak eta ekintzak garatzea eta aplikatzea, hala nola, egoera hobetzea edo tokiko ingurunea diseinatzea (adibidez, garraio-trukagailuak, aparkalekuak, argiteria publikoa), edo polizia-zerbitzuak eta antzekoak hobetzea, segurtasun- eta babes-gabeziaren pertzepzio desberdinak baina partekatuak hobetzeko.

22. artikulua – Genero-indarkeria

- (a) Sinatzaileak onetsi egiten du emakume eta nesken larregizko eragin ikaragarria daukan genero-indarkeriak oinarritzko giza eskubidea urratzen duela eta gizakien duintasuna zein osotasun fisiko eta morala iraintzen dituela.
- (b) Sinatzaileak onetsi egiten du, botere-harreman desberdinaren testuinguruan (data luzeko gizarte-erakuntzetan errotoak), erasotzaileak sexu bat bestearen gainera dagoela uste duelako adierazpena dela genero-indarkeria.
- (c) Hori dela eta, sinatzaileak genero-indarkeria gaitzesteko politikak eta ekintzak ezarri eta sendotu egingo ditu, bere eskumenen eremuan eta horien arabera. Horrez gain:
- biktimei laguntzeko eta biktimak sorosteko egiturak ematea edo sortzen laguntzea;
 - informazio publikoa ematea, inguruan erabilgarri dauden laguntzei buruz, gehien erabiltzen den tokiko hizkuntza bakoitzean;
 - profesionalek biktimak atzemateko eta sorosteko behar duten prestakuntza jaso dutela bermatzea;
 - zerbitzu egokien artean (polizia, osasun- eta etxebizitza-zerbitzuak) koordinazio eraginkorra egongo dela bermatzea;
 - benetako edo balizko biktimentzako eta/edo erasotzaileentzako sentsibilizazio-kanpainak eta hezkuntza-programak sustatzea.

23. artikulua – Gizakien salerosketa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du gizakien salerosketaren delitua, neskei eta emakumei neurritz kanpo eragiten diona, oinarritzko giza eskubideen urraketa dela eta gizakien duintasuna eta osotasun fisiko eta emozionala iraintzen dituela.
- (2) Sinatzailea arduratu egingo da gizakien salerosketa prebenitzeko politikak eta ekintzak ezartzeaz eta indartzeaz, honako hauek barne:
- informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak;
 - biktimak antzemateko eta sorosteko ardura duten profesionalentzako prestakuntza-programak;
 - eskariari pizgarriak kentzeko neurriak;
 - biktimei laguntzeko neurri egokiak, tratamendu medikoa, etxebizitza egokia eta segurua eta hizkuntza-laguntza jasotzeko aukera barne.

Plangintza eta garapen jasangarriaren helburuak

24. artikulua – Garapen jasangarria

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du bere lurraldearen etorkizunerako estrategien plangintzak eta garapenak erabat errespetatu behar dituztela garapen jasangarriaren printzipioak, hau da, ekonomiaren, gizartearen, ingurumenaren eta kulturaren dimentsioak era orekatuan integratzea, eta, bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta lortzeko beharra.
- (2) Beraz, sinatzaileak konpromisoa hartzen du emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa kontuan hartzeko, bere plangintza osoaren eta bere lurraldearen garapen jasangarrirako estrategia baten ezarpenaren funtsezko dimentsio gisa.

25. artikulua – Hiri- eta toki-plangintza

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du lurralde-antolamenduko, garraioko, garapen ekonomikoko eta lurzorua erabilerako bere politiken eta planen garrantzia, tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea osoago lortzeko baldintzak ezartzeko.
- (2) Sinatzaileak konpromisoa hartzen du politika eta plan horiek sortu, landu, onartu eta aplikatzeko orduan:
 - tokiko bizitzako alderdi guztietan benetako berdintasuna sustatzeko beharra guztiz kontuan hartuko dela;
 - behar bezala kontuan hartuko dela emakumeen eta gizonen behar espezifikoak, aniztasun osoan – tokiko datu egoki eta berrien arabera zehaztuta, sinatzailearen genero-balorazioak barne –, enpleguari, zerbitzuetarako eta kultura-bizitzarako sarbideari, hezkuntzari eta familia-erantzukizunei dagokienez;
 - emakume eta gizonen talde ezberdinen behar zehatzak kontuan hartzen dituzten diseinu-soluzioak hartuko direla.

26. artikulua – Mugikortasuna eta garraioa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du mugikortasuna, horretarako sarbidea eta garraio publikoko segurtasuna funtsezkoak direla aldez aurretik, eta aukera ematen dietela emakumeei eta gizonei beren eskubide, zeregin eta jarduera asko gauzatzeko, baita enplegua, hezkuntza, kultura eta funtsezko zerbitzuak eskuratzeko ere. Halaber, uste du udalerrri edo eskualde baten iraunkortasuna eta arrakasta, neurri handi batean, garraio publikoko azpiegitura eta zerbitzu eraginkor, iraunkor eta kalitatezkoaren garapenaren mende daudela.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du, halaber, emakumeek eta gizonek beharizan eta erabilera-jarraibide desberdinak izaten dituztela eguneroko bizitzan mugikortasunari eta garraioari dagokienez, hainbat faktoreren ondorioz, hala nola, diru-sarrerak, beren ardurapeko beste pertsona batzuk zaintzeko erantzukizunak edo lanorduak. Ondorioz, emakumeak izaten dira hainbat helburu eta abiabururekin lekualdatzen direnak, eta, beraz, garraio publikoaren erabiltzaile gehienak direnak.
- (3) Beraz, sinatzaileak konpromiso hauek hartuko ditu:
 - (a) kontuan hartzea mugikortasun-premia egokiak eta emakumeen eta gizonen garraioa erabiltzeko jarraibideak, aniztasun osoan, baita hiri- eta landa-komunitateetan ere;
 - (b) herritarren eskura dauden garraio publikoko zerbitzuek emakumeen eta gizonen behar zehatzak eta partekatuak asetzen laguntzen dutela bermatzea eta tokiko bizitzan benetako genero-berdintasuna ezartzeko eginkizun garrantzitsua betetzen dutela;
- (4) Era berean, sinatzaileak konpromisoa hartzen du bere lurraldeko garraio publikoko zerbitzuak pixkanaka hobetzen laguntzeko, konexio intermodalak barne, emakumeek eta gizonek garraio publiko fidagarri, eskuragarri, seguru eta irisgarriari lotuta dituzten premia zehatz eta partekatuak asetzeko, eta, gainera, inguru horren garapen jasangarriari laguntzeko.

27. artikulua – Garapen ekonomikoa

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du garapen ekonomiko orekatua eta iraunkorra berebiziko garrantzia duen faktorea dela udalerrri edo eskualde baten arrakastarako, eta eremu horretan egiten dituen jarduerak eta zerbitzuek nabarmen lagundu dezaketela genero-berdintasunean aurrera egiten.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeen enpleguaren tasa eta kalitatea handitu behar direla, eta badaki iraupen luzeko langabeziaren edo ordaindu gabeko lanaren ondoriozko pobrezia-arriskua bereziki handia dela emakumeen kasuan.
- (3) Sinatzaileak konpromisoa hartzen du, bere eskumenen, ekintzen eta zerbitzuen eremuen arabera, garapen ekonomikoaren esparruko zerbitzuen esparruan, emakume- eta gizon-taldeen beharrak eta interesak erabat kontuan hartzeko eta haien arteko berdintasunean aurrera egiteko aukerak kontuan hartzeko, horretarako beharrezkoak diren neurriak ere hartuz. Ekintza horiek honako hauek izan daitezke:
 - emakume enpresariei laguntzea;
 - enpresei ematen zaien laguntza ekonomiko eta bestelakoetan genero-berdintasuna sustatzen dutela bermatzea;
 - prestatzen ari diren emakumeak tradizioz «maskulinitzat» jo izan diren enpleguak lortzeko gaitasunak eskuratzera eta beharrezko kualifikazioak lortzera animatzea, eta alderantziz;
 - enplegu-emaileak emakumeak ikasten eta praktikan dauden emakumeak kontratatzea animatzea, genero-estereotipoak baztertuz tradizioz «maskulinitzat» jo izan diren gaitasunak, kualifikazioak eta karguak kontuan hartzerakoan, eta alderantziz.

28. artikulua – Ingurumena

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du bere ardura dela babes-maila handialortzeko eta bere lurraldeko ingurumenaren kalitatea hobetzeko lan egitea, batez ere hondakinei, zaratari, airearen kalitateari, biodibertsitateari eta klima-aldaketaren inpaktuari buruzko politikak bidez. Gainera, emakumeek eta gizonak ingurumenarekin lotutako zerbitzuak eta politikak baliatzeko duten legezko eskubidea onartzen du.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du leku askotan emakumeen eta gizonen bizimoduak desberdinak direla eta emakumeek eta gizonak tokiko zerbitzuek eta espazio publiko edo irekiez egiten duten erabilera desberdina izan daitekeela, eta, beraz, hainbat ingurumen-arazori aurre egiten dietela.
- (3) Ondorioz, sinatzaileak konpromisoa hartzen du, bere ingurumen-politikak eta ingurumen-zerbitzuak garatzeari dagokionez, emakumeen eta gizonen bizitza-modalitate bakoitzari lotutako berariazko premiei erabat eta berdin kontuan hartzera, belaunaldien arteko elkartasun-printzipioaz gain.

Arautzeko zeregina

29. artikulua – Toki-gobernu arautzaileak

- (1) Bere zereginak gauzatzean eta bere eskumeneko jarduerak arautzeko eginkizunak betetzean, sinatzaileak onetsi egiten du garrantzitsua dela kontsumitzaileen babesari buruzko erregulazio eraginkor batek betetzen duen zeregina, tokiko biztanleriaren segurtasuna eta ongizatea mantentzeko dagokionez, eta emakumeei eta gizonari modu desberdinean eragin diezaieketela dagozkien erregulazio-jarduerak.
- (2) Erregulazio-lanak gauzatzean, sinatzaileak konpromisoa hartzen du, emakumeen eta gizonen behar, interes eta bizi-baldintza espezifikoak, aniztasun osoan, kontuan hartzeko.

Nazioarteko senidetzea eta lankidetz

30. artikulua – Genero-berdintasuna lankidetz deszentralizatuan

- (1) Sinatzaileak udal-lankidetzaren, senidetzearen eta lankidetz deszentralizatuaren balioa onetsi egiten du, Europako eta nazioarteko tokiko eta eskualdeko gobernuek garapen iraunkorrerako egiten duten bezala, gizon eta emakume herritarrak elkarrengana hurbiltzeko eta, nazioko mugetatik haratago, elkarren arteko ikaskuntza eta elkar-ulertzea sustatzeko.
- (2) Sinatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu, senidetze eta lankidetz deszentralizaturako jardueretan:
 - hainbat jatorritako emakumeak eta gizonak jarduera horietan berdintasunez inplikatzeko;
 - senidetze-harremanak eta Europako eta nazioarteko partaideak emakumeen eta gizonen berdintasuneko gaiei buruzko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko plataforma gisa erabiltzeko;
 - genero-berdintasunaren dimentsioa txertatzea lankidetz deszentralizatuko ekintzetan.



ARTIKULU BERRIEN SARRERA

Atariko

Gutuna lehen aldiz argitaratu zenetik igaro diren hamabost urteetan, garrantzi handiko aldaketak gertatu dira gure elkarreraginerako, gobernatzeko, mugitzeko, lan egiteko eta jolasteko moduan. Gero eta gehiago jabetzen gara gure planetaren hauskortasunaz eta gobernu-maila guztiek, erakundeek eta gizarte zibilak modu kontzientean aurre egin behar dieten erronken ugaritzeaz. Erronka horiei ezin zaie modu iraunkorrean aurre egin haien genero-dimentsioak eta -inpaktuak kontuan hartu gabe.

Emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako Europako Gutuna urte askotako esperentziaren, ezagutza teknikoen eta negoziazioaren emaitza da. Dokumentu sendo eta iraunkor gisa pentsatuta, CEMRk eta bere elkarte kideek, artikulu berri horien bidez, Europako udalerrri eta eskualdeei orientabidea zabaltzea proposatu dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna erabiltzen baitute beren herrietan berdintasun handiagoa lortze aldera.

Azken krisiek, hala nola, COVID-19aren pandemiak eta Ukrainako gerrak, prestakuntza zibila eta krisien kudeaketara beharra adierazten dute, eraginkorra izango dena eta genero gaiak kontuan hartuko dituen. Gero eta ohikoagoa da ikustea IKTetan eta digitalizazioan egindako aurrerapenak ez direla neutralak generoaren ikuspegitik. Funtsezkoa da kontuan hartzea emakumeen eta gizonen nortasunak, beharrak eta lehentasunak prozesu eta tresna berrietan, genero-berdintasuna hobetu nahi bada, eta gure gizartean orain duela mende batzuetatik hona iraun duten joerak eta desberdintasunak iraunarazi nahiz ez badira.

Berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko, funtsezkoa da tokiko eta eskualdeko gobernuen beren eguneroko lanari datzekion genero-dimentsioa ulertzea eta neurriak hartzea, genero-harreman desberdinak eta arau eta jardunbide diskriminatzaileak zalantzan jartzeko, ez bakarrik beren politikan eta prozeduretan, baita beren era-

kundeetan ere. Gainera, funtsezkoa da mutilek eta gizonek prozesu horretan parte hartzea, aldaketa-eragile eta genero-berdintasunaren aldeko lanaren onuradun gisa.

Gutuneko xedapenak, artikulu berriekin batera, genero-arau tradizionalen ondorioak pairatzen dituzten pertsona guztiak biltzeko sortu dira, arau horiek baitira gure gizarteak egituratzen dituztenak eta gure pertzepzioak osatzen dituztenak. Gure komunitateak osatzen dituzten pertsonak askotariko nortasun-aukera eta zabala ordezkatzeko dute. Gutuna tokiko eta eskualdeko gobernuen adierazpen bat da, eta, horren bidez, adierazten dute gizartean genero-berdintasuna lortzeko helburu komunen alde lan egin nahi dutela, betiere berdintasun hori garrantzitsua bada eta herritar guztiei aplikatu ahal bazaie.

Emakumeek eta gizonek, tokian tokiko bizimoduan, izan behar duten berdintasunerako Europako Gutunera gehitu diren artikuluak Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak eta haren kide diren elkarteek landu dituzte. Haiek in lankidetzan, CEMRko genero-berdintasunari buruzko aditu taldeko eta CEMRko Berdintasunerako Batzorde iraunkorreko kideak aritu ziren. CEMRko Politika Batzordeak 2022ko abenduaren 6an onartu zituen formalki eta, egun horretan jarri zen indarrean.

Gutunaren sinatzaileei gonbidapena egiten diegu artikulu berriak atxiki eta berresteko, eta haien xedapenak txertatzeko Berdintasunerako Europako Gutunaren aplikazioan. 2023tik aurrera, sinatzaileek konpromisoa hartuko dute Gutunaren jatorrizko testuarekin eta 2022an gehiturako artikulekin.

Tokiko eta eskualdeko gobernuen egoera aldatu egiten da haien testuinguru nazionalaren arabera. Era beran, haien eskumenak eta erantzukizunak ere zabalak eta askotarikoak dira. Beraz, sinatzaileek beraien lehentasuneko eremuak ekintza-planetan ezar ditzakete, haien gaitasunen eta baliabideen arabera.

Artikulu berriak

Artikulu berriek duela 15 urte ez zeuden edo asko eboluzionatu duten gaiak eta erronkak jorratzen dituzte, eta gaur egun eragin handia dute genero-berdintasunaren lorpenean.

Gutunean sartutako artikulu berriek tokiko eta eskualdeko gobernuek genero-berdintasuna sustatzerakoan kontuan hartu behar dituzten bederatz **makrogai** biltzen dituzte:

1. Lehenik eta behin, funtsezkoa da elkar indartzen duten **garapen jasangarriaren** oinarrien alde egitea: gizarte-ekitatea, hazkunde ekonomikoa eta ingurumenaren babesa.
2. Ikasteko, harremanak ezartzeko eta jardueretan parte hartzeko aukera berriak eskaintzeaz gain, online munduak hainbat erronka zehatz dakarzkie neskei eta emakumeei, bereziki jazarpenari eta **ziberindarkeriari** dagokienez.
3. **Emakume hautetsiek**, emakume figura publikoek eta emakume langileek jasaten dituzten indarkeri eta abusuak mehatxu larriak dira gobernantza demokratikorako.
4. Tokiko eta eskualdeko gobernuek **interseksionalitatearen** kontzeptua eta estrategia erabil dezakete genero-inklusio handiagoa bermatzeko, batez ere diskriminazio-modu anitzak eta elkarri lotuak bizi dituzten neskei eta emakumeei dagokienez.
5. Teknologia modernoeri esker, talde profesional askok **lan-bizitza malguagoa** dute. Asko dira orain etxetik lan egin dezaketen pertsonak, baina ez guztiak, eta horrek genero-berdintasunerako aukerak sortzen ditu, baina baita arriskuak ere.
6. Neska eta emakume guztien **inklusio digitala** funtsezkoa da guztiontzako etorkizun hobea sortzea helburu duen gizartea garatzeko. Hala ere, IKTaren eta digitalizazioaren aurrerapenak ez dira neutralak izan generoari dagokionez. Beraz, funtsezkoa da tresna eta prozesu berriak garatzea eta erabiltzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna hobetzeko tresna eta prozesu berriak sortzea eta erabiltzea, ahuldu beharrean.
7. Neskek eta emakumeek askatasunez eta baldintza berdinetan bizi, zuzendu eta aurrera egin dezakete, **sexu-eta ugalketa-osasuneko eskubideak** errespetatzen direnean soilik.
8. **Klima-aldaketak** mehatxuak biderkatzen ditu eta tentsio sozial, politiko eta ekonomikoak areagotzen ditu, neurritz kanpo neskei eta emakumeei eraginez.
9. Genero-berdintasuna eta nesken eta emakumeen parte-hartze aktiboa ezin dira alde baztertu krisi-garaietan; aitzitik, prestakuntza **zibilaren eta larrialdi-erantzuna-ren arrakastaren osagai eraginkortzat hartu behar dira.**

31. artikulua - Garapen jasagarria etorkizun jasangarrirako

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du genero-berdintasuna garapen jasagarriaren eta elkarri lotutako dimentsio guztien motorra dela, hala nola pobrezia eta gosea desagertaraztea, oparotasuna eta hazkunde inklusibo sustatzea, gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak sortzea eta planetaren eta haren baliabide naturalen babesa bermatzea.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du, gainera, garapen jasangarrirako 2030 Agendaren eta 2030aren ondorengo jasagarritasun-agendaren asmoak globalak direla, nahiz eta tokian toki ezarri. Garapen Jasagarriko 17 helburuek tokiko eta eskualdeko gobernuen erantzukizunekin lotura zuzena duten xedeak dituzte, eta genero-berdintasuna helburu horiek guztiekin lotzen den zeharkako haria da, helburu horiek arrakastaz bete ahal izateko. Zehazki, sinatzaileak onetsi egiten du Gutuneko konpromisoak 5. helburuarekin bat datozela.

32. artikulua. - Ziberindarkeria

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du genero-indarkeriak mota guztietako ziberindarkeria barne hartzen duela. Ziberindarkeria-ekintzak hainbat motatakoak izan daitezke: jazarpena, mehatxua, pribatutasuna urratzea, sexu-abusua eta sexu-esplotazioa, bai eta aurreitziakin edo talde-sozialen, komunitateen edo pertsonen aurkako gorroto-delituarekin lotutako delituak ere. Sinatzaileak onetsi egiten du ekintza horiek neurritz kanpo eragiten dietela emakumeei eta neskei.
- (2) Indarkeria horri aurre egiteko, sinatzaileak honako neurri hauek hartzeko konpromisoa hartzen du, bere erantzukizunen arabera:
 - neurriak hartzea, enplegu-emaile gisa, lantokian abusua, jazarpena eta indarkeria modu guztietan debekatzeko, baita hirugarrenen indarkeria eta ziberindarkeria debekatzeko ere;
 - erne egotea erakundeko zerbitzuetan, batez ere, eskoletan, mota guztietako jazarpena eta indarkeria prebenitzeko eta eragozteko;
 - mutilak, neskak eta gazteak heztea eta gurasoei aholkuak ematea, ziberindarkeriari eta horrek dakartzan genero-alderdiei buruz, baita nola prebenitu eta eragotziari buruz ere;
 - mutilak eta gizonak inplikatzeko, aldaketa-eragile eta genero-berdintasun handiagoaren onuradun izan daitezkeen, eta, horrez gain, emakumeenganako gorrotoa sustatzen duten online komunitateen erradikalizazioa prebenitzea.

33. artikulua – Emakume hautetsien eta langileen aurkako indarkeria

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du beren burua hautagai gisa aurkezten duten edo hautetsiak edo beste kargu publiko batzuk betetzen dituzten emakumeen aurkako mehatxuak eta indarkeria –online eta fisiko– generoarekin lotuta egon ohi direla, eta emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa oztopa dezaketela, demokraziaren printzipioa ahulduz.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du leku segurua behar duela politika egiteko. Helburu horrekin, sinatzaileak hitzematzen du, bere erantzukizunekin bat eginez, laguntza-prozesu eta -egiturak garatuko dituela, emakume hautetsi eta enplegatuei gorroto-diskurtsoari aurre egiten gidatzeko eta laguntzeko.
- (3) Sinatzaileak konpromisoa hartzen du hautagai ordezkariak eta haren langileak beren eginkizunak betetzean jasan ditzaketan eta bereziki emakumeei eragiten dieten hirugarrenen indarkeria eta jazarpena prebenitzeko, murrizteko eta arintzeko.

34. artikulua – Interseksionalitatea eta aniztasuna

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du pertsonen nortasunak eta esperientziak ezin direla besterik gabe batu, aldiz, elkarrekin erlazionatzen direla eta konplexuagoak direla.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du beharrezkoa dela nesken eta emakumeen ahotsak eta esperientziak aintzat hartzea; izan ere, neska eta emakume horiek diskriminazio-modu asko eta elkarri lotuak jasan ditzakete, eragiten dieten politiken eta programen garapenari, aplikazioari eta jarraipenari dagokienez. Horretarako, sinatzaileak neurriak hauek har ditzake:
 - EBko legeak ¹² babestutako nesken eta emakumeen behar zehatzak kontuan hartzea, eta haien integrazioa eta inklusioa sustatzea, zentzuzko neurri eta ekintza positibo guztiak hartuta, beren eskumen juridikoen esparruan;
 - hezkuntza-jardueretan genero-estereotipoak zalantzan jar daitezten sustatzea, eta hainbat jatorri-tako jokabide-eredu ugari sustatzea, baita liburutegi publikoetako liburu eta beste material batzuetako katalogoetan eta haien sustapen-jardueretan ere.

12 Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 21. artikulua: "sexua, arraza, kolorea, jatorri etniko edo soziala, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, iritziz politikoa edo beste edozein motatakoa, gutxiengo nazional bateko kide izatea, jabetza, jaiotza, desgaitasuna, adina edo sexu-joera".

35. artikulua – Malgutasuna lantokian

- (1) Sinatzaileak lan-malgutasunak, telelana barne, gizonei zein emakumeei bizitza profesionala, soziala eta pribatua uztartzea errazteko eskaintzen dizkien aukerak onetsi egiten ditu. Era berean, sinatzaileak onartu egiten ditu lan egiteko modu berriek emakumeei ekar diezazkieketen arriskuak eta desabantailak, besteak beste, osasun mentala okertzea, diru-sarrerak edo enplegua murriztea eta ordaindu gabeko etxeko lanen eta zainketen karga handitzea. Hori, askotan, emakumeek egiten dute, neurriz kanpo.
- (2) Sinatzaileak bere jarduera eta zerbitzuetan lan-malgutasuna sustatzeko konpromisoa hartzen du, gizonen eta emakumeen bizitza profesional, soziala eta pribatuaren uztarketa errazteko.
- (3) Sinatzaileak, enplegatzaile gisa, emakumeek egiten duten ordaindu gabeko zainketen zama telelanak handitzeko arriskuari arreta jartzeko konpromisoa hartzen du.

36. artikulua – Digitalizazioa eta inklusio digitala

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du komunikazio digitalerako tresna berriek aldatu egin dutela herritarrek, agintariek, enpresa pribatuek, gizarte zibilak eta beste erakunde batzuek informazioa komunikatzeko, zabaltzeko eta biltzeko duten modua. Teknologia digitalak aukera handiak eskaintzen ditu tokiko eta eskualdeko gobernuek ematen dituzten zerbitzuak garatzeko eta hobetzeko.
- (2) Sinatzaileak aitortzen du ikaskuntza digitaleko irtenbideek funtsezko zeregina izan dezaketela hezkuntzan neska, mutil, emakume eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko, batez ere, eskolatzaldian atzeratuta dauden horiengana iristeko. Gainera, onartzen du emakumeei kalte egin diezaiekeela online teknologiaren eta teknologia digitalaren sarbidean eta erabileran dagoen genero-arrakala digitalak, baita garapen teknologikoan eta gobernantzan ere. Horrenbestez, konpromisoa hartzen du emakumeek eta neskek ikaskuntza digitaleko irtenbideak eskura izan ditzaten, irakaskuntza eta ikaskuntza digitala genero-ikuspegetik sustatuz eta ZTIM ikasgaien hezkuntza eta neskentzako eta emakumeentzako gaitasun digitalen garapena babestuz.

37. artikulua – Sexu- eta ugalketa-osasuneko eskubideak

- (1) Tokiko eta eskualdeko gobernuek berebiziko garrantzia dute herritarren artean sexu- eta ugalketa-osasuna sustatzeko eta bermatzeko. Ildo horretan, sinatzaileak konpromisoa hartzen du, dagokionaren arabera eta bere eskumen eta erantzukizunen esparruan, honako neurri hauek aplikatzeko edo sustatzeko:
- (a) sexu-hezkuntza integrala eskaintzen duten eta hilekoaren inguruan dauden gizarte-arauak, estigma eta diskriminazioa bezalako gaiak jorratzen dituzten mutil, neska, gizon eta emakumeei zuzendutako programak bultzatzea eta sustatzea, haien dibertsitate osoan, nesken eta emakumeen osasuna, ongizatea eta duintasuna hobeto ulertzeko eta babes eta defentsa handiagoa emateko;
- (b) talde kalteberetako emakumeen eta nesken beharrik kontuan hartzea eta osasun-arreta jasotzeko berdintasuna bermatzea, hori baita sexu- eta ugalketa-osasuneko eskubideen funtsezko zatia.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du osasun-berdintasunak barne hartzen duela sexu- eta ugalketa-osasunerako eskubidea, eta eskubide hori urratzearen kausak eta ondorioak aitortzen ditu.
- (3) Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeak eskubidea dela beren sexualitatearekin zerikusia duten gaien gaineko kontrola izateko eta horri buruz askatasunez erabakitzeke, hala nola, familia-plangintzako, kontrazepzioa, abortu seguruko eta legezko zerbitzuak eta jaio aurreko eta ama-arretarako zerbitzuak.

38. artikulua – Klima-aldaketa eta ingurumen osasun-tsuazateko eskubidea

- (1) Berotze globala, biodibertsitatearen galera eta kutsadura arrisku larria dira oinarritzko giza eskubideez gozatzeko, besteak beste, bizitzarako, osasunerako eta familiarako eskubideaz gozatzeko. Sinatzaileak onetsi egiten du ingurumen osasuntsua izateko eskubidea oinarritzko giza eskubidea dela, eta kontuan hartu behar dituela emakumeen eta nesken beharrak.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du tokiko eta eskualdeko gobernuek funtsezko zeregina dutela ingurumen- eta klima-erronkei erantzuteko, batez ere, hiriguneetan, giza eskubideen printzipioen eta genero-ikuspegia duten politiken arabera. Beraz, sinatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu:
- tokiko politikan, klima-aldaketaren aurkako neurriak txertatzeko beharrari buruzko sentsibilizazioa hobetzea, eta genero-ikuspegia duten konponbideak kontuan hartzen dituzten garapen-eredu iraunkorrak hartzea;
 - ingurumen-politikak eta -planak formulatu eta aplikatzerakoan, emakumeen ikuspegiak eta esperientziak barne hartzea, politikak egiteko fase eta prozesu guztietan genero-partaidetza orekatua lortzeko azken helburuarekin.

39. artikulua – Krisien kudeaketa eta prestakuntza zibila

- (1) Sinatzaileak onetsi egiten du krisiak eta horien kausak anitzak direla eta elkarri lotuta daudela, eta, askotan, modu desberdinean eragiten dietela gizonei eta emakumeei.
- (2) Sinatzaileak onetsi egiten du toki- eta eskualde-gobernuek funtsezko zeregina betetzen dutela krisi garaian, komunitatearen lehentasunak eta emakumeen eta gizonen, nesken eta mutilen beharrak identifikatu nahi direnean aniztasun osoan.
- (3) Sinatzailearen ustez, beharrezkoa da krisi-garaian hartzen diren erabakietan eta prestakuntza zibilaren aldez aurreko plangintzan emakumeen ordezkariak eta partaidetza egokia bermatzea, genero-ikuspegia izango duten eta, aldi berean, etorkizuneko krisi eta asalduren aurrean erresilientzia indartuko duten berreskuratze-neurriak eta -estrategiak zehaztu eta hartzeko.
- (4) Sinatzaileak honako neurri hauek hartzera konprometitzen da, bai prestaketaren plangintzan, bai krisien kudeaketan:
 - emakumeen parte-hartzea indartzea politikan, erakunde publikoetan eta kargu-nagusietan, larrialdien aurkako prestakuntzak eta krisien kudeaketak genero-ikuspegia izan dezaten;
 - komunitatearen gizarte zibila babestea, funtsezko zeregina baitu krisietan genero-dimentsioak adierazteko eta gizarte-babeseko eta gizarte-segurantzako zerbitzuak gainbegiratzeko eta babesteko;
- sexuaren eta adinaren arabera banakatutako datuen bilketa, estatistikak eta generoaren arabera bereizitako ondorioak frogatzen dituzten emaitzak areagotzea, generoarekin lotutako larrialdien ondorioei eraginkortasunez aurre egiteko eta krisien kudeaketa hobetzeko.
- (5) Sinatzaileak konpromisoa hartzen du emakumeak eta neskek genero-indarkeriatik babesteko neurri bereziak aldarrikatzeko, bereziki bortxaketaren eta beste sexu-abusu mota batzuen aurka, gatazka armatuetan.



AIPAMENAK

Gutun honen 2022ko eguneraketa Silvia Baraldi CEMR-ren Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Batzorde Iraunkorreko presidentearen (2021-2022) zuzendaritzapean egin zen, honako hauen laguntzarekin:

- CEMReko genero berdintasuneko aditu taldeko kideak
- CEMReko tokiko bizitzan emakumeen eta gizonen berdintasunerako batzorde iraunkorreko kideak

CEMRko idazkaritza: Jaimie Just, Oriane Loquet, Marlène Siméon, Beatrice Tommasi, Pierre Vander Auwera

Zuzentzailea: Penny Yim-Barbieri

Diseinu grafikoa: Paf! Design

Itzulpena: Eurideas, PoliLingua, EUDEL

Testu originala – 2006

Egileak: Sandra Ceciariini eta Jeremy Smith

CEMReko kide diren elkar teen eta bazkideen babesarekin eta ekarpenekin:

- Bulgariako Errepublikako Udalen Elkarte Nazionala (NAMRB)
- Zipreko Udalerrien Batasuna (UCM)
- Txekiar Errepublikako Hirien eta Erkidegoen Batasuna (SMO CR)
- Finlandiako Tokian Tokiko eta Eskualdeko Agintaritzen Elkarte (AFLRA)

- Frantziako CEMR Atala (AFCCRE)
- Alemaniako CEMR Atala (RGRE)
- Greziako Udalerrien eta Erkidegoen Batasun Zentrala (KEDKE)
- Hungariako Tokiko Agintaritzen Elkarte Nazionala (TÖOSZ)
- Italiako CEMR Atala (RGRE)
- Luxenburgoko Hiri eta Udalen Elkarte (SYVICOL)
- Poloniako Hirien Elkarte (ZMP)
- Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa (FEMP)
- Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL)
- Tokiko eta Eskualdeko Agintaritzen Suediako Elkarte (SALAR)
- Viena hiria (Austria)
- Saint Jean de la Ruelle hiria (Frantzia)
- Frankfurt am Main hiria (Alemania)
- Cartagena hiria (Espainia)
- Valentzia hiria (Espainia)
- Denboraren eta Mugikortasunaren Etxea, Belfort-Montbéliard (Frantzia)
- Tokiko eta Eskualdeko Agintaritzen Partzuergo Euro-mediterraneoaren Batzorde Iraunkorra (COPPEM)

CEMRI buruz

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak (CEMR) edozein erakundetako tokiko eta eskualdeko gobernuen kide gehiago ditu Europan. Kide dira Europako 40 herrialdetako udalerrien eta eskualdeen 60 elkarte nazional baino gehiago. Elkarte horiek tokiko eta eskualdeko 100.000 gobernu inguru ordezkatzan dituzte.

CEMRren helburuak bi dira: tokiko eta eskualdeko gobernuen izenean, Europako legerian eragitea, eta elkarte kideen eta funtzionario hautetsi eta adituen arteko trukerako plataforma bat eskaintzea.

Nazioarteko agertokian, CEMR Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen Europako Atala (CGLU) da tokiko gobernuen munduko erakundea.

www.cemr.eu

Behatokiari buruz

CEMRek Berdintasunerako Europako Gutunaren Behatokia atera zuen 2012an, Gutuna sinatu zutenei Gutuna ezartzeko eta genero-berdintasuna sustatzeko ahaleginetan laguntzeko. On-line plataformak genero-berdintasuneko tokiko politika arrakastatsuen adibideak eta jardunbide egokiak erakusten ditu, eta sinatzaileen artean berdinen arteko ikaskuntza errazten du. Halaber, orientabidea ematen du berdintasunerako ekintza-plan bat egiteko moduari buruz, eta datu-base bat aurkezten du ("Atlas"), sinatzaileen genero-berdintasunerako ekintza-planetarako estekak eta harremanetarako informazioa ematen duena.

Behatokiaren lana CEMRren Idazkaritzak koordinatzen du, CEMRren Berdintasunerako Batzorde Iraunkorarekin eta CEMRko kide diren elkarteetako koordinatzaile nazionalek/genero-puntu fokalek osatutako aditu-talde batekin lankidetzan.

www.charter-equality.eu





TOKIKO BIZITZAN, EMAKUMEEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUROPAKO GUTUNA

Europako tokiko eta eskualdeko gobernuak, beren biztanlerian berdintasun handiagoa lortzeko, beraien boterea eta aliantzak erabiltzeko duten konpromisoa jasotzen duen Gutuna.

Nik, behean sinatu dudan honek,.....(e)k, (sinatzailearen izena)

.....(e)ko toki erakundeak, (tokiko/eskualdeko gobernuaren izena)

.....kargua dudanak, (alkate, presidente, ...)

nire sinaduraren bidez, berretsi nahi dut goian aipatutako agintaritzak, formalki, Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunari atxikitzea onartu duela, Gutunaren xedapenak betetzeko, eta, behar bezala, baimenduta nagoela gai honetan agintaritza horren izenean jarduteko.

Sinatzailea

Eguna

Inprimaki honen kopia sinatua eta beteua Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluari, Gutunaren sortzaile eta arduradunari, helbide honetara bidaltzea erabaki dut:



Idazkaritza Nagusia

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua
Square de Meeûs 1
B-1000 Brusela Belgika
charter@ccre-cemr.org



Local & Regional Europe
L'Europe locale & régionale

BRUSELA

1, de Meeûs Plaza
1000 Brusela
tel. : + 32 2 511 74 77
charter@ccre-cemr.org

cemr.eu
charter-equality.eu

twitter.com/ccrecemr
twitter.com/cemr_equality



Argitalpen honen edukiak egilearen iritzia baino ez du adierazten, eta haren erantzukizun eskusiboa da. Europako Batzordea ez da bertako informazioaren erabileraren erantzule.